

# txintxarri



## Sahararengatik, topa

Oporrak Bakean egitasmoari esker primerako uda igaro dute zenbait haur sahararrek eta harrera familiek / 2

ISAAC FARRE

## Extremadurako Etxea, festetan

Guadalupeko Ama Birjinaren omenezko jaiak ospatuko dituzte igandera arte, hilak 8. Egitarau oparoa prestatu dute / 3

Irailetik urtarrilera  
arteko ikastaroen  
eskaintza aurkeztu  
du Emakumearen  
Zentroak / 4

Denboraldi berriari  
ekin aurretik,  
eskaintza bereziak  
egingo dituzte  
merkatariak / 5

Buruntzaldeko  
euskaltegietan  
euskara ikasteko  
matrikula daitezke  
herritarrak / 8-9

Euskotren Ligan nagusi  
izan ostean, Donostia  
Arraun Lagunak-ek  
Kontxako Bandera ere  
eskura du / 10

Buruntzaldea IKTko  
Nahia Zudaire  
Borrezko hiru finaletan  
lehiatu da Paralinpiar  
Jokoetan / 11

Udako hitzordu  
garrantzitsuak atzean  
utzi eta azken  
jardunaldietan sartu  
da Hipodromoa / 12

**2x189 €**  
MÓ BETAURREKO PROGRESIBOAK

BATZUK EGUZKITAKOAK IZAN DAITEZKE  
MILA MODELO BAINO GEHIAGO

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



P.P.S. 9/1/20

## MULTIÓPTICAS

943 37 74 55  
Kale Nagusia, 15. LASARTE-ORIA



eskatu hitzordua  
WhatsApp bidez

www.multiópticas.com   



Haur sahararrak, harrera familietako kideak eta egitasmoaren antolatzaileak, Mendebaldeko Saharako banderarekin. ISAAC FARRE

# Aurtengoa izan dadin azkena

Oporrak Bakean egitasmoan parte hartu duten familia lasarteoriarrekin igaro dute udara Hasana, Ahmed eta Jalil haur sahararrek. Tinduf-eko errefuxiatuen kanpalekuetara itzuli aurretik festa polita egin dute Xirimiri elkartearen, elkar agurtzeko

## Txintxarri

Aurtengo uztailla eta abuztua ez dituzte berehalakoan ahaztuko Hasana, Ahmed eta Jalil-ek, udara hau igarotzera udalerrira etorri diren hiru haur sahararrek, ezta Euskal Herriko beste hamai-k tokitan izandakoek ere (Andoainen izan den Lansari-k, esaterako). Bizitako guztia gogoratuko dute baita ere ume horiek etxean hartu dituzten harrera familiek eta baita Lasarte-Oria Sahararekin Elkartasuna Taldeko kideek ere. Gure herria Oporrak Bakean egitasmoa koordinatzeaz arduratzen da eragile hori, proiektuaren beraren lantaldea eta udalarekin elkarlanean.

Udako bi hilabete horietan zehar, 8 eta 12 urte arteko haurrak Saharako udako baldintza gogorretatik aldenteaz gain, beraien elikadura eta osasuna hobetzen dute eta osasun azterketak egiten

dizkiote, besteak beste. Herrialde horretako gatazka politikoa ahaztu, sasoi indartu eta beste errealitate batzuk ezagutzeko aukera ematen diete.

Egitasmo zoragarri eta garrantzitsua izanagatik, Lasarte-Oria Sahararekin Elkartasuna Taldeko lagunek espero dute aurtengoa izatea proiektua aurrera eraman behar izan duten azken aldia. "Sahara libre izatea da gure nahia eta datorren urtean sahararrak beraienak diren lurretara itzuli eta udara han igarotzea espero dugu". Kontatu dute balorazioa "positiboa" izan dela: "Lasarteoriarrek beti adierazi izan dute elkartasuna eta eskertzekoa da hori". Eskerrak eman dizkiote baita ere Lasarte-Oriako Udalarari, Oporrak Bakean diruz lagundu, haurrei udal kiroldegian igeriketa ikastaroa egiteko aukera eman eta

itzultzaile bat kontratatu izanagatik. Datorren urterako, ordea, "inplikazio, elkarlan eta kanpaina bateratua" egitea eskatu diote erakundeari, batez ere, Gizarte Zerbitzuen sailari. "Horri esker, ziur gaude herritar gehiago animatuko lirakeela".

## Harremanak sakontzen

Udalerriko harrera familietako batekin hitz egin du TXINTXARRI-k, udarako bi hilabeteak nolakoak izan diren jakiteko. "Bigarren urtez izan da Hasana gure artean: udaran eta urte guztian zehar harremanak sakondu ditugu bai berarekin bai bere familiarekin. Horrek, besteak beste, kanpalekuetan zein baldintza gogorretan bizi diren jabetzea eragin du. Kezkaz ikusten dugu Hasanaren eta bere senideen etorkizuna, bai eta saharar errefuxiatu guztiena".



Saharar te goxoa prestatu zuen Bulahi-k, Xirimirin bertan. ISAAC FARRE



Oporrak Bakean-en parte hartu duten haurrek "talde oso polita" sortu dute. LOSET



Igerian ikasteko oinarrizko ikastaro bat jaso zuten gaztetxoek. LOSET

Uztailan eta abuztuan zehar "ekimen pila bat" aurrera eraman dituzte, udalerrian bertan zein Gipuzkoan: Ttakun Kultur Elkartearen Udako Txokoak, Donostiako Aquariumera eta Reale Arena estadiora bisita, Izar Park-en egonaldia... Elkar agurtzeko festa Xirimiri elkartearen egin zuten abuztuaren 28an eta haurrak hurrengo egunean itzuli ziren euren bizitokira.

## Erreferenduma aldarri

Sahararren historiako azken bost hamarkadak "traizioz beteak" izan dira, Kristina Berasain Tristán kazetariak *Sahara, herri bat erresistentzian* liburua Lasarte-Orian aurkeztu zuenean azaldu zuenez. 1973an Fronte Polisarioa eratu zuten, garai horretan Espainiaren kolonia zen herrialdearen autodeterminazio eskubidea aldarrikatu eta he-

rrialde gisa euren etorkizuna erabaki behar zutela aldarrikatzeko. Nazio Batuen Erakundeak ebazpen bidez aitortu zien aukera hori; are, ikuskari talde bat bidali zuen lurraldera eta eskaera hori berretsi zuten txostenetan.

Bien bitartean ari ziren traizioa egosten Espainia bera, Maroko eta Mauritania, Hiruko Akordioa deritzonaren bidez. Itun horren ostean aurrera eraman zuten Martxa Berdea izenez ezagutzen den inbasio militar eta zibila, 1975ko azaroaren 6an hasi zena. 350.000 lagun sartu ziren sahararren lurretara eta basamortura ihes egin beste erremediorik ez zuten izan bertakoek, bidean asko hil eta desagertu ostean.

Indar okupatzaileak sahararrak jazaritzen segitzen duten arren, tinko eusten diote euren etorkizuna erabakitzeko erreferendum bat egitearen aldarriari.



Extremadurako Etxeko nahiz udaleko ordezkariak, egitaraua aurkezten. TXINTXARRI

# Zaindariaren omenezko jaiak ospatuko dituzte

Guadalupeko Ama Birjinaren festak aurrera eramaten ari da Extremadurako Etxea. Egitarauan ez dira falta probintzia horretako onena herrira ekartzeko ekimenak: jantzien desfilea, bazkari eta afariak, pintxo-potea, musika emanaldiak...

## Txintxarri

Udarako oporrak amaitu dira askorentzat eta bueltatu dira eguneroko errutina gogorrera. Iraila hasteak, edonola ere, ez du esan nahi dibertitzeko eta ongi pasatzeko aukerarik ez dagoenik. Horren adibide dira Guadalupeko Ama Birjinaren omenezko jaiak, Lasarte-Oriako Extremadurako Etxeak igande-

ra arte (hilak 8) aurrera eramango dituenak. Urtero bezala programa oparua prestatu dute antolatzaileek eta herritar denak gonbidatu dituzte antolatutako ekimenetan parte hartzera. Ospakizun eremu nagusiak eragile horrek Adarra kaleko 4. zenbakian duen egoitza eta Sasoeta auzoa izango dira (batez ere, Jaizkibel plaza).

Extremadurako Etxeko kideek lasarteoriatarak animatu dituzte jaietan parte hartzera. Antolatu dituzten ekimen guztien artean 18 urtetik gorako emakumeen bola txapelketa nabarmendu dute: "Urtetik urtera arrakasta gehiago duen jarduera da, oso pozik gaude". Igandean izango da jarduera hori, 17:30ean, Jaizkibel plazan.



Jantzien desfilea izango da jardueretako bat. TXINTXARRI

## Herritar guztientzako ekimenak

Hauek izango dira Extremadurako Etxeak igandera arte (hilak 8, Guadalupeko Ama Birjinaren Eguna) aurrera eramango dituen jarduera nabarmenenak:

### Ostirala, hilak 6

- **18:30ean**, bazkide eta lagunentzako luntxa.
- **19:30ean**, bandera igotzea, txupinazoa eta danborrada.
- **19:45ean**, Extremadurako jantzien desfilea.
- **20:00etan**, Dinbi Banda batukada taldearen emanaldia.
- **22:30ean**, MNV DJaren saioa: *Udarako kantak*.

### Larunbata, hilak 7

- **11:00etan**, meza, Ama Brigitarren komentuan. Tolosatik etorritako Flor de la Jara taldeak girotuko du elizkizuna.
- **14:30ean**, paella herrikoa.
- **16:00etan**, futbolen txapelketa kooperatiboa, Jalgune elkartearen eskutik.
- **18:00etan**, Donostiatik etorritako Virgen de Guadalupe taldearen emanaldia.
- **21:00etan**, bazkideen afaria.

### Igandea, hilak 8 (ama birjinaren eguna)

- **11:30ean**, haurrentzako jolasak eta tailerrak.
- **13:00etan**, LOZET elkartearen buruhandi eta erraldoiekin kalejira, Sasoeta auzoan barrena.
- **14:30ean**, herri bazkaria: Extremadurako eltzekaria.
- **17:30ean**, 18 urtetik gorako emakumeentzako bola txapelketa.
- **20:00etan**, bandera jaitea eta jaien amaiera.

Egitarau osoa 15. orrian irakur dezakezue, 'Agenda' atalean.

# HEZITZAILE lan poltsa



AURTENGO PROGRAMAK  
DISEINATZEN ARI GARA.  
GUREKIN LAN EGIN NAHI  
BADUZU BETE  
FORMULARIOA:

[labur.eus/hezitzailelanpoltsa](http://labur.eus/hezitzailelanpoltsa)





Argaki honetan ageri dira emakumeen zentroko langilea, Gizarte Zerbitzueta teknikiariak eta udal ordezkariak. TXINTXARRI

# Ahalduntzen jarraitzeko ikastaro eskaintza

Ikasturte berrirako prestatu duten eskaintzaren berri eman dute Sexuen Elkarbizitarako Emakumearen Zentroko kudeatzaileek. Hilaren 12ra arteko epea izango dute herritarrek ikastaroetan izena emateko; aurrez aurre zein sarean egin ahal izango dira inskripzioak

## Txintxarri

Ikasturte berriari ekin dio Sexuen Elkarbizitarako Emakumeen Zentroak, eta horrekin batera, zenbait ikastaroren eskaintza egin die herritarrei, Horietan parte hartzeko izen ematea hilaren 4an abiatuko du, asteazkenearekin, eta 12ra arte luzatuko dela jakinarazi dute arduradunek. Horretarako bi aukera izango dituzte interesdunek. Inskripzioa aurrez aurre egin nahi dutenek, honako ordutegian joan beharko dute Aralar plazako egoitzara: hilaren 2tik 6ra, 09:30etik 13:00etara, eta, 9tik 13ra, berriz, arratsaldez ere bai, 15:00etatik 19:00etara. Bigarren aukera da sarean inskribatzea; horretarako honako helbide hau erabili beharko dute: <https://www.lasarte-oria.eus>. Webgune horren barruan, *Udal tramiteak* ataleko *Gizarte Zerbitzuak* azpiatalean sartu behar dute, eta *Emakumearen Zentroa* aukeratu.

Izen emateekin lotuta, antolatzailerak ohartarazi dute ez dituztela telefono bidezko inskripzioak onartuko; harremanetarako bide hori ikastaroen inguruko edozein zalantza argitzeko soilik erabil daitekeela argitu dute.

Behin izen emate epea itxita, hilaren 23an hasi eta urtarrilaren 31n bukatuko dira ikastaro guztiak.

Toki baino eskaera gehiago jasotzen diren kasuetan, hilaren 13an, eguerdian, egingo duten zozketa baten bidez erabakiko dute nortzuk parte hartuko duten jarduera bakoitzean. Zozketan herrian erroldatutakoek lehentasuna izango dute-

la nabarmendu dute arduradunek.

Ohiko ikastaroak zein jabetze eskolako kursoak euskaraz, gaztelaniaz edo elebitan emango dituztela azaldu dute antolatzailerak.

Informazio osoa, [www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) web atarian.

## Ikastaro sorta

### Ohiko ikastaroak

- Yoga (erroldatuek, 38,25 euro; ez erroldatuek, 63,75 euro)
- Hipopresiboak (erroldatuek, 44,55 euro; ez erroldatuek, 74,25 euro)
- Eskulanak (erroldatuek, 51 euro; ez erroldatuek, 85 euro)
- Tai Xia (erroldatuek, 21,98 euro; ez erroldatuek, 36,64 euro)
- Jantzi konponketak eta patrioiak (doan)
- Bitxiak (doan)
- Katua (doan)
- Gorputza entzuten eta sentitzen ikasiz (doan)
- Batuka (doan)
- Gorputzaren autozainketa (doan)

### Emakumearentzako Jabetze Eskola

- Antzerkia (erroldatuek, 51 euro; ez erroldatuek, 85 euro)
- Biodantza. Dantzatu (ezazu) indarra (erroldatuek, 38,25 euro; ez erroldatuek, 63,75 euro)
- Emakumea, autoestima eta norberaren maitasuna (doan)
- Mugitu, adierazi, jabetu! (doan)
- Mindfulness ahalduntzea (doan)
- Gure bizitzari buruz elkarrekin ikasten (doan)
- Gen-eroa (doan)
- Emakumeon sormen akelarrea (doan)
- Ondo zahartzea: eutsi zure ametsi (doan)
- Autodefentsa feminista (doan).



Programaren zenbait ordezkari aurtengo egitasmoa aurkezten. TXINTXARRI

## Ahalik eta euskal hiztun osatuenak lortzeko elkarlana

Ikasturte berrian ere GurasoLeku egitasmoa martxan jartzear direla iragarri dute Ttakun KEk, udalak eta ikastetxeek

### Txintxarri

Haurrak ahalik eta hiztun osatuenak izateko helburuari eutsiko dio Lasarte-Oriak abiatu berri den ikasturte berri honetan ere GurasoLeku programari esker. Herriko zenbait eragilek elkarlanean aurrera eramaten duten ekimena da, eta lantalde horren ordezkari bat Okendo plazan batu da berriki, egitasmoa aurkeztu eta martxan jartzeko.

Hiru adar ditu GurasoLekuk: GurasoLagun, GurasoTegi eta GurasoLandia, eta oso errotuta dago herrian Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak, eragile ezberdinekin batera, 2015-2016 ikasturtean abian jarri zutenetik, Hainbat eragilerekin elkarlanean abiatu zuen proiektua; gaur-gaurkoz, hauek osatzen dute lantaldea: Sasoeta-Zumaburu eskola, Landaberri ikastola, Andrejoakinaenea haurreskola, Burunzpe Guraso Elkarte, Landaberri Guraso Elkarte, Muntteri AEK euskaltegia, Ttakun

Kultur Elkarte eta Euskara Zerbitzua.

### Izen ematea martxan

Aipatu egitasmoan parte hartzeko izen ematea ezinbesteko baldintza da; horretarako azken eguna hilaren 30a izango dela ohartarazi dute arduradunek. Ikastetxeek ikasturte hasierako guraso bileretan emango diete gurasoei egitasmoaren berri, eta inskripzioak, urtero bezala, zentroen bitartez aurrera eramango dira; programan aritu nahi duten gurasoek eskuorriak jasoko dituzte eta horiek euren datuekin bete beharko dituzte. Hori ginda, berriz ere ikastetxetan entregatu beharko dituzte.

Programaren gaineko informazio gehiago behar duenak, edota izen emate orriak eskuratu nahi dituenak udaleko Euskara Zerbitzura jo dezake, baita Ttakun Kultur Elkartera ere.



**IZEN EMATEA ZABALIK**  
ESKUORRIA HERRIKO IKASTETXEETAN

# Denboraldi berriari ekin aurreko eskaintzak

Biltegiko produktuen eskaintza egingo du Aterpeak asteburuan; Stock Azoka deitu dute, hilaren 5, 6 eta 7rako. Urruzola mertzeria atarian batu dira zenbait merkatar, deialdiaren nondik norakoak azaldu eta herritarrak bertan parte hartzera animatzeko

## Txintxarri

Denboraldi berriari ekin aurretik, eta biltegian pilatutako uda sasoiko produktuak herritarrei eskaini asmoz, Stock Azoka aurrera eramango du, asteburuan, Aterpea merkatarien elkarteak. Hala jakinarazi dute bertako kideek berriki prentsaurrean.

Mabel Pedreira merkatarien elkarteak lehendakariak eman ditu egitasmoaren xehetasunak. Lehenik eta behin, udal ordezkarien presentzia eskertu du bertan izan dira Agustin Valdivia alkatea, eta Sozioekonomia batzordeburu, Nuria Fernandez; Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Turismo saila ere ahotan izan du.

Azokari erreferentzia eginez, nabarmendu du biltegian pilatutako uda denboraldiko produktuen eskaintzak egingo dituztela: "Aukera paregabeak izango dituzte herriko bezeroek", gaineratu du.

## Dozena bat establezimendu

Merkatarien elkarteak kide diren hamabi negoziok parte hartuko dute asteburuko jardueran. Hauek dira horiek guztiak: Urruzola mertzeria; Imagine jantzi denda; Olmi mertzeria; Mabel Moda; Iturbe zapata denda; Alba moda; Leder oinetakoak; Nogues moda; Lilura liburudenda; Deco 75 Textil Hogar; Arrege elektrizitatea eta Bote Totto. Stock Azokaz gain, egitasmoaren barruan beste bi deialdiaren berri ere eman du Pedreirak. Hilaren 6an, larunbata, izango dira horiek biak. Alde batetik, hilaren 6an (10:30etik 20:00etara) eta 7an (10:30etik 14:00etara) *Flash Day* egunak izango dira Bote Tatton. Horretaz gain, Patricio tabernak ostiralean, hilak 6, koktelak eskainiko ditu DJ batek musikaz girotzen duen bitartean; 17:00etatik 21:00etara izango da hori.

Gauzak horrela, egitasmoak arrakasta izan dezan herritarrak

horretan parte hartzera deitu ditu elkarteak. Eguraldiarekiko kezka azaldu dute, horrek eragin zuzena izan dezakeela iritzita, baina bezeroek erantzungo dutela ere ziur adierazi dute.



Komertzio parte hartzaileek eskaintza bereziak egingo dituzte. TXINTXARRI



Aterpea merkatarien elkarteak kideak eta udal ordezkariak, Stock Azokaren aurkezpen agerraldian. TXINTXARRI

## Elizkizunetarako ordutegi berria, eskualdeko parroketan

Andatzazpiko kristau elkarteetako kideek jakinarazi dute hilaren 15ean sartuko direla indarrean moldaketak

## Txintxarri

Eskualdeko parroketan ordutegi aldaketak egingo dituztela jakinarazi dute Andatzazpiko kristau elkarteetako kideek, zehazki, hauetan: gure herriko San Pedro eta Arantzazuko Ama Birjinakoetan, batetik, eta Usurbil-Aginagako Salvatore eta Asisko San Frantziskokoetan, bestetik. "Duela bederatzir urtetatik bi parroko izan ditugu, Ibon Alberdi eta Juan Luis Murua, Andatzazpi Pastoral Barrutiko elkartearen buru eta zerbitzari izan direnak.

Uda honetan jakin dugu Ibonek ezin izango duela gurekin jarraitu, Gotzaindegiak erabaki duelako beharrezkoa dela bere egoera aldatzea. Hortaz, Juan Luis izango da lau eliza horietako parrokoa", azaldu dute.

Egoera berri horren aurrean, elizkizunen ordutegiak aldatu egingo dituztela jakinarazi dute eta moldaketa horiek hilaren 15ean jarriko dituztela indarrean. Gauzak horrela, San Pedron larunbatetan egingo dituzte mezak (elebitan), 19:00etan. Igandeetan, berriz, 10:00etan San



San Pedro elizaren kanpoaldea. TXINTXARRI

Frantziskon, 11:30ean Salvatore, 12:00etan San Pedron eta 12:30ean Arantzazuko Ama Birjinan. Bestalde, astelehenetatik larunbatetara, 11:00etan, Ama Brigitarren komentuan eukaristia ospatzen jarraituko dute. Felix Garitanok

jarraituko du bertako kapilaua izaten.

## Hiletak, astean bitan


Hiltzen diren pertsonen aldeko elizkizunak astean bi egunetan egingo dituzte udalerrri bako-

tzean. Arantzazuko Amakoak astelehenetan egingo dituzte, 18:00etan; San Pedrokoak, ostiralean, 19:30ean. Usurbil-Aginagan, berriz, astelehenetan izango dira Salvatorekoak, 19:30ean, eta ostegunetan Salvatore edo San Frantziskon, 19:30ean. Beilatokian edo hilerrian oroitzu batekin hildakoak agurtu nahi dituzten familiek parrokiekin jarri ahalko dira kontaktuan, 639 02 88 61 telefono zenbakiaren bidez. Era berean, bestelako zalantza edo premiarik dutenek harremantarako bide hori bera erabili beharko dute.

Kristau elkarteetako kideek adierazi dute "berria" dela egoera eta "egokituz" joan beharko dutela guztiek, "kristau elkarteari ahal den arreta eta zerbitzu onena emateko".


## Bakoitzari berea

Ea asmatzen duzun zer jango duen euli bakoitzak.



## ZU bai HAMALAU!

Azkar batean, goiko eta beheko irudien arteko aldeak aurkitu behar dituzu. 14 dira guztira.








## DOMINOAN

Lauki zurietan falta diren irudiak marraztu, domino zati honek zentzua izan dezan.




### OsPa!

Armiarmak eulia harrapatu du sarean, baina oraindik ere badu aukera bat ihes egiteko. Lagundu euliari zirrikituak aurkitzen eta saretik ateratzen.



# Zeeer pili
















































## HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA



Eman irudiño bakoitzari bere hizkia, eta esaera bat agertuko zaizu. Erabili hizki-marrazkien alfabetoa.



# Margotu



## Txintxarri

Ikasturte berrirako euskalduntzea izango dute helburu, beraz, hainbat eta hainbat herririkidek, tartean, lerrotoako bi protagonistek: Danna Ocampo eta Wen Chen Guangli. Biak ala biak atzerrian jaio arren, Buruntzaldea dute bizileku egun. Aurtengo ikasturterako matrikulatuko direnen artean izango dira. Biek ibilbide ezberdinak izan arren, haien lekukotzek nabarmentzeko moduko ezaugarri eta antzekotasunak dituzte, euskara ikasteko buru-belarri murgilduak diren prozesuei dagokienean. Biek ala biek dute haientzat berria den hizkuntza hau ezagutu eta erabiltzeko gai izateko ilusio eta motibazioa. “Nire helburua gutxienez B2 eskuratzea da”, adierazi digu Wen Chen Guanglik. Orain arte jorrraturiko bidean sakondu nahi du Ocampok ere. “Ikasten segitu nahi dut. Badakit euskara akademikoa eta kalekoa ez dela hizkuntza bera, baina euskara ikasi nahi dut nire ezagutza eta ikasketak gaitasuna heltzen den lekuraino. B2 eskuratu arte, horraino iristea espero dut”. Orain arteko bidelagunekin berrekin nahi dio euskalduntze prozesuari. “Nire ikaskideekin batera egoten jarraitzea espero dut, taldean denok batera egoteak motibatzen baikaitu”, gaineratu du Ocampok.

## “Bizitako esperientzia ederra”

Euskara ikasi nahiz ezagutza eta erabilera maila hobetu asmo dutenak ere ikasturte berri honetan euskaltegian matrikulatzen gongratatu dituzte. “Ahalegina egitetik dator emaitza. Egunerokoan egindako saiakera eta ahalegin horretan jarritako maitasunetik, tartetxo bat irakurtzeari eskainiz edo hitzak ikasiz, hori guztia barneratzen zoaz. Bizitako esperientzia ederra da bai irakaslearekin, bai ikaskideekin. Hor dago dirulaguntzen arloa ere. A1 urratsean adibidez, %100eko dirulaguntza jaso nuen Usurbilgo Udaletik”, nabarmendu du Dannak.

Bera bezala, ikasketak prozesuan murgildu nahi dutenak animatu ditu Guanglik. Gako garrantzitsutzat jo du bizileku duen Urnietako bertako hizkuntzan trebatzea. “Polita eta bizi-esparrua zabaltzen duen hizkuntza da euskara niretzat. Kanpotik gatorontzat, euskara ikastea baliabide garrantzitsua da hemen ondo bizitzeko”, nabarmendu du.

# "Euskara baliabide garrantzitsua da hemen ondo bizitzeko"

Zabaldu berri dute 2024-25 ikasturterako matrikulazio epea eskualdeko euskaltegietan. Euskara ikasi nahiz maila hobetzeko aukera izango da datozen hilabeteotan Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo euskaltegietan. Maila guztietan matrikulatu eta geure bertako hizkuntza ikastea sustatzen ere segituko dute eskualdeko udalek



Udalek diruz laguntzen dute ikasleek eginiko ahalegina. Argazkian, Buruntzaldeko euskaltegietako langileak.

## Euskaraz aritzeko ilusioa

Wen Chen Guangli Txinan jaio zen, Pekinetik ehun bat kilometrorara, 14 milioi biztanleko ingurunean. Duela 22 urtetik bizi da inguruotan, “gustura asko”, azpimarratu digunez. Lehenbizi Donostian, Zarautzen tartetxo batean, egun Urnietan.

Pedagogia ikasketak eginak ditu, enpresa-ikasketek lotutako masterra ere egin du. Hizkuntzekiko zaletasun nabarmena du. Bere sorterriko ama-hizkuntzarekin batera, inguruotako beste hainbat menderatzen ditu; egun, hemengo du, ordea, jomugan. Izan ere, beka baten bidez heldu zen Euskal Herrira, Txinan ikasketak amaitu ostean. Enpresa munduan aritu zen lanean. Ere mu horretan, “beti euskaraz hitz egiten zuten. Nik gaztelaniaz. Egunen batean euskaraz hitz egiteko gai izateko ilusio handia nuen”.

2020. urtea heldu zen, guztiontzako urte ahaztezina, covid19ak eragindako osasun krisialdiaga-

tik. Txinara itzuli behar izan zuen gaixo zuen aita zaintzera. Euskara ikasteko ilusioa ez zitzaion apaldu une gogor horietan ere eta hantxe, baldintza gogor horietan hasi zen euskalduntzen, bere kabuz. “Euskara ikasten hasi nintzen. Egunero gramatika ikasten nuen neuk bakarrik lau orduz”, oroitarazi du. Aita hil zitzaionean, Euskal Herrira itzuli zen, sorterrian hasitako trebakuntzari jarraipena ematera. Euskaltegian matrikulatu zen. “Orain arte asko ikasi eta oso ondo pasa dut irakaslearekin, ikaskideekin”.

Hemen, lan munduan murgiltzeko euskara lagungarri eta beharrezkotzat jotzen du. Bestalde, hizkuntzak “asko gustatzen zaizkit betidanik. Euskal kultura polita da”.

## Euskarari esker, “integratua”

Ildo horretan, gaineratu digunez, kultura horretan murgiltzeko “hizkuntza erreminta garrantzitsua da”. Bere motibazio mailaren

nondik norakoez galdetuta, argi erantzun du, “helburu bat jartzen dudanean, saiatu eta saiatu jarraitzen dut”. Bidelagun ditu, gustukoa duen euskal historia, euskal dantzak, euskarazko irratia... Euskarari esker, “integratua sentitzen naiz hemen”. Itxuragatik, segituan kanpotartzat jotzen dute eta euskaraz hasten denean, “harritura geratzen dira”. Etor-kizunean, bere sorterriko eta bizilekuko hizkuntzak, txinera eta euskara bateratu eta zerbait egiteko nahia du.

Danna Ocampok ere sorterrian ikasitakoan sakontzen segitu nahi du. Kolonbian jaioa, Donostiara heldu zen lehenbizi amaren aldeko senideen artera. Egungo bikotelaguna ezagutu eta Usurbil du bizitokia egun. “Erizaintzako laguntzailea naiz eta horri lotutako zerbait ikasi nahi nuen hemen. Lanbide Heziketako ziklo bat egin nuen laborategi klinikoari lotutakoa. Sektore publikoan lan egin nahi nuen”, azaldu digu. Horrekin batera, bikotelagunaren



“Euskarari esker integratuta sentitzen naiz”, Wen Chenek adierazi digunez.



Danna Ocamporen esanetan, “%100eko dirulaguntza jaso nuen Udaletik”

familia euskalduna da eta “ilusioa egiten dit haiekin euskaraz hitz egin ahal izateak eta hemen bizitako bertako hizkuntza ezagutzea oso ondo dago”, batez ere, nabarmendu digun moduan, herririkide dituenekin harremana eduki ahal izateko.

## Erabilera erronka

Euskaltegian dabil euskalduntze lanetan. Zaila izan zaio ikasketak prozesua baina “pausoz pauso, ezer ez jakitetik hitz batzuk ulertu eta elkarrizketetan erabiltzen hastea oso atsegingarria izan da”. Bidelagunen garrantzia azpimarratu digu Ocampok. “Gustuko dut klaseetara joatea, irakasleekin hitz egitea eta klasekideekin saioak partekatzea, oso lagungarria da. Euskara ez genekien taldekideon artean konplizitatea sortu da. Irakaslea beti egokitu izan da nire egoerara. Bikotelagunak ere asko lagundu dit etxeko lanekin”.

Sare horren garrantzia nabarmendu du Dannak. Izan ere, “nik hemen amaren familia dut baina migrante asko bakarrik datoz”. Euskara ikastea sare hori erakitzen hasteko baliabidetzat ikusten du. Euskalduntze horretan, sare horri begira da Ocampo.





*Buruntzaldeko udalek %70 - %100  
artean diruz laguntzen dute euskara ikastea!*

**Usurbil**



**Andoain**



**Lasarte-Oria**



**Urnieta**



**Hernani**



**Astigarraga**



**Eus  
ka  
ra  
ikasiz**

Erabiliz ikasi,  
ikasiz erabili



Buruntzaldea  
euskaraz

**Jo gogoko duzun euskaltegira eta izena eman!**

**ANDOAIN**

**Andoingo AEK**  
Plazaola, 2  
943 591 704  
andoain@aek.eus

**LASARTE-ORIA**

**Muntteri AEK Euskaltegia**  
Geltoki kalea, 17 behe  
607 625 233  
lasarte@aek.eus

**HERNANI**

**Hernaniko AEK**  
Larramendi, 11  
943 557 801 - 607 592 864  
Zilegi eskola: 663 043 314  
hernani@aek.eus

**USURBIL**

**Etumeta AEK Euskaltegia**  
Kale Nagusia, 43 behe  
607 609 379  
usurbil@aek.eus

**ASTIGARRAGA**

**Astigarragako AEK**  
Kultur etxea. Nagusia, 48  
607 610 687  
astigarraga@aek.eus

**Lasarte-Oriako Udal Euskaltegia**

Bekokale bidea, 1  
(anbulatorioaren gainean)  
943 361 621  
euskaltegia@lasarte-oria.eus

**Hernaniko Udal Euskaltegia**

Karobietta, 63  
(anbulatorio zaharra)  
943 331 896  
euskaltegi@hernani.eus

**URNIETA**

**Urnietako AEK**  
San Joan, 42 (Elkarteen etxea)  
662 338 747  
urnieta@aek.eus



euskara.buruntzaldea.eus/dirulaguntzak



Andoingo Udala  
Goiko plaza, z/g  
20140 Andoain



Astigarragako Udala  
Foru enparantza  
20115 Astigarraga



Hernaniko Udala  
Gudarien plaza, 1  
20115 Hernani



LASARTE-ORIA  
Lasarte-Oriako Udala  
Kale Nagusia, 22  
20160 Lasarte-Oria



Urnietako Udala  
Urnietako Udala  
San Juan plaza, 5  
20130 Urnieta



Usurbilgo Udala  
Jose Martin Sagardia plaza  
20170 Usurbil

# Arraun Lagunak-ek, hutsik ez lehen saioan

Donostia Arraun Lagunak ontziak denbora onena egin du Kontxako banderako lehen jardunaldian. Bederatzi segundoko errenta lortu du eta bigarren jardunaldiari begira, saria eskuratzeko faborito da. Lugañenek ederki borrokatu beharko du helburua lortzeko

## Txintxarri

Iraila hastearekin batera, Kontxako Banderako lehen jardunaldia jokatu zen Donostiako badian. Donostia Arraun Lagunak izan zen onena eta Aiora Belartietak eta Nahia Goenaga herritarrak kide dituen eskifaiak bederatzi segundoko aldea atera zien aurkariei.

Lugañene Euskotren Ligako garaipenaz hauspotuta dator, non bandera guztiak bildu dituen. Denboraldi biribilari amaiera bikaina emateko proba berezi horretako garaikurra eskuratzea besterik ez du Donostiako ontziak; hilaren 8an egiteko garrantzitsua du bigarren txandan.

Lehenengo proban Orio Orialki, Astillero Eneer Services, Cahpela Wofco eta Kaiku Nortegas izan ziren lehian. Mirotzak izan ziren nagusi euren lehian eta 10.37,38 denbora eginez iritsi ziren helmugara.

Jarraian, bigarren txandako partaideak jarri ziren lanean. Donostia Arraun Lagunak Tolosaldea, Nortidal Donostiarrak



Donostia Arraun Lagunak, lehen jardunaldian lehian. JOSEBA PARRON SAN SEBASTIAN/IRUTXULOKO HITZA

eta Hibaika Jamones Ancin izan zituen aurrez aurre.

Hasieratik buru jarri zen Lugañene. Ziabogan segundo bateko aldea atera zion lehen tandako Oriori; atzetik zituen Nortidal Donostiarrak eta Tolosaldea ontziei, aldiz, lau eta zazpi segundoko, hurrenez hurren.

Bigarren luzean eta, batez ere, badian sartzean handitu zuen Belartietak eta Goenaga kide di-

tuen eskifaiak errenta. Helmu-gara iristean 10.28,26 denbora egin zuen Donostiako taldeak eguneko markarik onena lortuz (ikus koadroa).

Eta bigarren lehiari lasai aurre egiteko moduko errenta eskuratu zuen, bederatzi segundoko eta hamabi ehuneko. Baina aurkari zuzenek ez diote Donostia Arraun Lagunak erraz irabazten utziko; Orio Orialki, Tolosaldea eta Nor-

## Jardunaldiko sailkapena

1. Donostia Arraun Lagunak 10.28,26
2. Orio Orialki 10.37,38
3. Tolosaldea 10.40,40
4. Nortidal Donostiarrak 10.42,06
5. Astillero Eneer Services 10.49,76
6. Chapela Wofco 10.54,78
7. Hibaika Jamones Ancin 11.01,88
8. Kaiku Nortegas 11.02,28

tidal Donostiarrak izango ditu nor baino nor txandan.

## Ezusteak sailkapenean

Abuztuaren 28ko sailkapen proban ere, bandera helburu duela argi utzi zuen Lugañenek. Hogeitateru izan ziren uretan bi asteburuetan parte hartzeko txartela eskuratzeko, baina zazpi bakarrik lortuko zuten helburua. Nortidal Donostiarrak ez du sailkapena jokatu behar.

Adituek egindako aurreikuspenetan Donostia Arraun Lagunak zen indartsuena eta ederki asmatu zuten; faboritoetako batzuk kanpoan geratu ziren, ordea. Hala nola, Euskotren Ligako hiru ontzi: Intza Fernandez herritarra kide duen Hondarribia zein Cabo da Cruz eta Tiran.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

GORENGO MAILA, LAGUNARTEKOA

#### Ostadar SKT - Oiartzun

Larunbata. 11:45. Michelin kirol gunean.

I. ERREGIONALA, LAGUNARTEKOA

#### Ostadar SKT - Luberrri

Larunbata. 11:45. Michelin kirol gunean.

CD Trintxerpe - Texas Lasarte CF

Igandea. 15:00. Pasaian.

OHOREZKO J. M., LAGUNARTEKOA

#### Ostadar SKT - Billabona

Larunbata. 17:30. Michelin kirol gunean.

I. JUBENILA, LAGUNARTEKOA

#### SD Euskalduna - Texas Lasarte CF B

Larunbata. 12:30. Andoainan.

#### Urnieta KE - Texas Lasarte CF A

Larunbata. 16:00. Urnietan.

OHOREZKO K. M., LAGUNARTEKOA

#### Ostadar SKT - Hernani

Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.

I. KADETEA, LAGUNARTEKOA

#### Urnieta KE - Texas Lasarte CF B

Larunbata. 12:30. Urnietan.

#### Ostadar SKT B - Sanse

Igandea. 09:30. Michelin kirol gunean.

Ostadar SKT (neskak) - Martutene

Igandea. 11:00. Michelin kirol gunean.

### SASKIBALOA

J. ERRENDIMENDUA, LAGUNARTEKOA

#### Ostadar SKT - SaskiAxular

Larunbata. 10:30. Maialen Chourraut kirol.

K. ERRENDIMENDUA, LAGUNARTEKOA

#### Ostadar SKT - Bera Bera

Igandea. 11:30. Maialen Chourraut kirol.

### TXIRRINDULARITZA

#### VALENTZIARTEKO ITZULIA

Caja Rural-Alea taldeko Beñat Carbayeda herritarrek Valentziako itzulia lehiatuko du. Ostiraletik igandera. Valentzian.

### ERRUGBIA

#### EUROPAKO SUPER KOPA

Alex Saleta herritarra kide duen Castilla y Leon Iberians taldeak Lusitanosen aurka jokatu du lehen jardunaldia. Larunbata. Portugalen.

### IGERIKETA

#### KONTXA BADIARTEKO IGERIALDIA

Herritarrak kide dituen Kontxa Badiako igerialdian parte hartuko dute. Larunbata. 11:45. Kontxako badia, Donostian.

### ZALDI LASTERKETAK

#### UDAKO DENBORALDIA

Udako denboraldiko azken bi jardunaldiak jokatu dira. Igandea eta osteguna 12. 17:30/18:00. Hipodromoa, Donostian.

### ARRAUNA

#### KONTXAKO BANDERA

Herritarrak kide dituen Donostia Arraun Lagunak-ek Kontxako banderako bigarren jardunaldia lehiatuko du. Igandea. 11:00. Kontxako badia, Donostia.

### PARALINPIAR JOKOAK

#### IGERIKETA

Buruntzaldea IKTKo Nahia Zudairek 4x100 m. libre 34 puntu errelebo mistoa lehiatuko du. Larunbata. 20:34. Nanterre, Frantzia.

## Liga eta bandera guztiak, Lugañenera

2024 urteko Euskotren Ligan protagonista bakarra izan da, Donostia Arraun Lagunak. Ontzi horrek arraunaren historian txoko bat egin du; bandera guztiak eskuratu ditu aurtan Aiora Belartietak eta Nahia Goenaga herritarrak kide dituen eskifaiak eta Ligako garaikurra bereganatu du.

Denboraldia aurre joan ahala bere nagusitasuna ikusita helburua moldatzen joan da Lugañene. Liga erdian matematikoki irabazia zutela ikusirik, bandera guztiak eskuratzeko lan egin zuen Donostia Arraun Lagunak. Baita lortu ere, hamabost banderak Lugañene baserrian bildu ditu taldeak. Ezin



Donostia Arraun Lagunak-eko kideak, garaikurra jasotzen. A. ARRIZABALAGA/EUSKOTREN LIGA

izan dituzte jardunaldi guztiak irabazi, ordea. Zarautzen, Ligako

azken saioan Tolosaldeak garaitu zuen aurtengo txapelaldia, baina

# Zudaire, finaletik finalera Paralinpiar Jokoetan


Buruntzaldea IKTKo Nahia Zudaire Borrezo Parisko Paralinpiar Jokoetan ari da lehian. La Defense-ko igerilekuan bakarkako zein errelebo probetan parte hartu du zubietarrak. Lehenetan finalera iritsi da eta diplomak eskuratu ditu igerilari gazteak

## Txintxarri

Abuztuaren 28an, Paralinpiar Jokoen sua piztu zuten Parisen, Frantzia. Hurrengo egunean, egoitza ezberdinetan hamaika kirol modalitateetako nazioarteko kirolariak hasi ziren lehian. Nanterre-ko La Defense igerilekuan, esate baterako, Buruntzaldea IKTKo Nahia Zudaire Borrezo ari da.

Buruntzaldea IKTKo kideak 4x50 m. libre 20 puntu errelebo mistoarekin hasi zuen lehiaketa. Goizeko sailkapen proban parte hartu zuen Zudairek Daniel Ferrer, David Sanchez eta Marta Fernandezekin batera. Azken posta egin zuen igerilari gazteak (33,08) eta txandako hirugarren amaitu zuten lehia, (02.40,42). Finalerako sailkapena eskuratu zuten seigarren denbora onenarekin, baina Zudaire ez zen hitzordu horretan egon, Sarai Gasconek ordezkatu zuen.

Bakarka, hilaren lehenean egin zuen estreinekoz igerian.



Nahia Zudaire, proba batean uretara jauzi egiten. BAT BASQUE TEAM

Goizean, SM8 mailako 200 m. estilo probako bigarren kanporaketa gainditu zuen Zubietako igerilariak seigarren denbora hoberenarekin (02.52,57). Finallean ezin izan zuen marka ondu (02.54,65) eta zortzigarren sailkatuz, diploma eskuratu zuen.

S8 mailako 400 m libre proba egin zion aurre hilaren 4an. Sailkapeneko bigarren txandan egin zuen igeri Zudairek eta laugarren (05.12,66), amaitu zuen lehia. Bi saioen sailkapen oro-

korrean, aldiz, seigarren izan zen eta arratsaldeko finallean lehiatu zen. Dominaren lehian denboraldiko marka ondu zuen, 05.05.46, baina ez zen nahikoa izan podiumean egoteko. Zazpigarren postua eta diploma berria gehitu zituen txapelketako poltsara.

Egun bat geroago, SB7 mailako 100 m. bular probak eman zion hasiera igerilekuko egunari eta lehen seriean lehiatu zen Buruntzaldea IKTKo igerilaria.

## Chourrautek, finalean hutsa

Ez da posible izan. Ezin izan dugu Maialen Chourrautek berriro ere Olinpiar Joko batzuetako podiumean ikusi. Herritarrek laugarrenez Olinpiar Jokoetan parte hartu zuten Parisen. Oraingoan bi probetan izan zen lehian piraguista, K1ean eta kayak kros modalitatean.



Chourrautek, lehian. BAT BASQUE TEAM

Pausoz pauso joan zen dominadun kirolaria Parisko ur bizietako K1 mailako lehian uztail amaieran. Sailkapena eta finalerdia gainditu ostean, finalean parte hartu zuen herritarrek. Ezin izan zuen podiumera igo, ordea; jaitsieran bigarren atean huts egin eta hamabigarren postuan amaitu zuen lehia.

Herritarrek pena izugarria zuen egindako akatsarengatik zein dominen lehian egon ezinagatik, baina eskertuta ere, animoengatik.

Abuztuaren 2tik aurrera, aldiz, Kayak kroseko txapelketari egin zion aurre Chourrautek.

Bigarren aukera baliatu behar izan zuen erlojupekoa gainditzeko, eta, lauko lehiatan, bere txandan bigarren denbora onean eginez final laurdenera iritsi zen.

Lasarteoriatarrek Noemi Fox australiarra, Ricarda Funk alemaniarra eta Luuka Jones zeelandarra izan zituen aurkari kanporaketan. Ederki borrokatu arren, ozeaniarrek lortu zuten final erdirako txartela.

Ederki jardun zen La Defenseko igerilekuan eta 50 metroetako pasean lehen izan zen. Bigarren luzean, aldiz, Winnifriith britainiarrek gainditu zuen zubietarra eta bigarren izan zen 01.36,91 markarekin.

Finalera laugarren denborarik onenarekin iritsi zen igerilari gaztea eta postu berean amaitu zuen proba, podiumetik bi se-

gundo pasatxora: 1.33,48ko marka egin zuen zubietarrak. Mariia Pavlova-k kolokatu zuen urrea, nola eta munduko errekorra hautsita: 1.26,09.

## Azken lehia

Ez du lehia amaitu Zudairek, ordea; hilaren 7an, 4x100 m. libre 34 puntu errelebo librea lehiatzea espero du.

## Jon Martinek Alaves eta Getaferen aurka jokatu du

Lasarte-Oriako defentsa bigarren zatian atera da bi neurketetan eta ederki moldatu da zelaian

## Txintxarri

Jon Martin herritarrek EA Sports Ligan debuta egin zuen hirugarren jardunaldian. Real Sociadetek Alavesen zein Getaferen aurka jokatu dituen norgehiagoketan lehian izan da bigarren zatian eta bietan maila ona erakutsi du.

Abuztuaren 28koa Martinek zale txuri-urdinen aurrean ligan jokatu zuen aurreneko partida izan zen. Lan zaila izan zuen Imanol Alguacilen taldeak egun horretan; 30. minutuan jokalaria bat gutxiagorekin geratu zen, epaileak Mikel Oyarzabal kapi-



Martin, Alaveseko Stoichkov-i baloia kendu nahian. REAL SOCIEDAD

tainari txartel gorria atera ostean eta berdinketa lortzeko borrokatu zen arren, 1-2 galdu zuen. Atsedenditik bueltan zelairatu zen herritarra, Jon Pachecoren ordez eta abagune polit bat izan zuen korner batean. Tamalez, langatik gora joan zen buruz egin zuen errematea.

Hilaren lehenean ere norgehiagoka intentsoa eta gorabeheratsua izan zuen Realak Getafen. Madrilgo taldearen aurka aukera gutxi sortu zituen talde txuri-urdinak eta bigarren zatian, batez ere, defentsa lan ederra egin behar izan zuen taldeak markagailua husna mantentzeko. 46 minutuan Zubeldiaren lesioarengatik sartu zen Martin zelaian. Bost minutu geroago, Realeko arean arrisku handiko jokaldi batean adi egon zen herritarra baloia urrunduz.



Real Sociada B taldeko jokalariek, garaikurrekin. EH KIROLA

## Alvarezek, B mailako Euskal Herria

Euskal Herria Kopako B mailan, Real Sociada B taldeak jaso du kopa. Fanderiako zelaian, Erreterian Bizkerre taldearen aurka jokatu zuen talde txuri-urdinak finala hilaren 1ean eta Gorka Alvarez herritarrek zuzendutako taldeak 4-0 garaitu zuen talde bizkaitarra. Denboraldiaren aurrekari ederra izan da taldearentzat; hilaren 8an, Eibar B izango du arerio RFEF bigarren federazioko lehen jardunaldian.

# Sari handiak eta askoz gehiago, Hipodromoan

Udako denboraldiko azken jardunaldiak jokatu dituzte Donostiako Hipodromoan. Abuztuan zehar, sari nagusietan harmailak turf zalez bete dituzte. Zaletuek ederki gozatu dute, baina ezusteko bat baino gehiago izan da hainbat lasterketetan

## Txintxarri

Sari Nagusietako lehiak atzean utzita, Donostiako Hipodromoak udako denboraldiko azken jardunaldiei egingo die aurre irailean.

Hilaren lehenean jokatu zen azken-hirugarren saioa eta lasterketa politez gozatu zuten zaletuek.

Jockey amateurrek Onda Cero saria borrokatuz eman zioten hasiera arratsaldeari. Pablo Labordek gidatuta, lehiakideak atzean utzita iritsi zen helmugara *Dance-Ahead*.

Ezusteak izan ziren hurrengo hiru sarietan. Kirol txartela sarian *Maderas*-Janaçek faboritua buru jarri arren, *One More Night*-Gelabert bikoak gaititu zuen azken zuzengunean. Bikoak ez zuen garaipena ospatu, ordea; azken 100 metroetan *Dayshan*-Sarbria bikoak irabazi zuen proba.

*Rayc*-Sousa eta *Pontejos*-Borrego faboritok atzean utzita, Gelabertek gidatutako *Haya Taal* gailendu zen Gautena sarian.



Lehia ederrak izan dira abuztuan zehar. ISAAC FARRERICO

*Eta Athelia*-Martinez bikoak eramane zuten PMC Saria; *Marchelo*-Lucas eta *Black Voice*-Buesa gaititu zituen azken metroetan.

Eguna amaitzeko, Nazioarteko Kriteriumeko lehiakideek ikuskizun paregabea egin zuten. Janaçek azken postuan mantendu zuen *Bulnes*, Bugatiko bihurtetik aterata arte. Orduan,

erritmo bizia ezarrazazi zion zaldiari eta kanpotik pixkanaka aurkari guztiak gaititu zituen azken metroan saria *Vamos Niño*-Gelabert bikoari lapurtzeko.

## Urrezko kopa eta eguraldia

Abuztuan zehar, saio interesgarriak ikusi ahal izan dira, baita ezusteak ere. Sari nagusiek

ikusleez bete zituzten harmailak eta eguraldia ere protagonista izan zen.

Ohi den moduan, Urrezko kopa lehiatu zen abuztuaren 15ean, ostegunean. Jaieguna izanik, Hipodromoan lepo bete zen.

Best Horse zalditegi portugaldarra izan zen lasterketa nagusiko protagonista eta euren zaldiak, *Media Storm*-ek Valentin Seguyren gidaritzapean saria irabazi zuen.

Aipatu zalditegiko hiru kidek probako burua hartu zuten. *Nights on Broadway*-Mouesan eta *Blue Starlight*-Foulon bikoek proba gidatu zuten eta *Media Storm*-Seguyk euren atzean mantendu zen azken metroetara arte. Orduan, babesa utzi eta *Media Storm*-ek bere potentzia erakutsi zuen. Podiuma Best Horsena izango zela zirudien arren, *Homo Deus* faboritok Veronek gidatuta azken momentuan kendu zion brontzeko postua *Blue Starlight*-i.

Baina hori ez zen eguneko momentu nabarmen bakarra izan. Raul Ramos herriararen eta Ricardo Sousaren arteko borroka ederra izan zen bi probatan, Asanet eta Alejandro Padilla sarietan, hain zuten. Lehenean azken metroetan irabazi zuen portugaldarrak *Tammani* gidatuta; bigarrengoan, aldiz, arantza ateratu zuen Lasarte-Oriako jockeyak *Akaral* bikote zuela.

Lau egun lehenago jardunaldia aurreratu behar izan zuten antolatzaileek tenperatura altuengatik.

Goizeko saioan, Maria Cristina hotela saria nagusia lehiatu zuten behorrek eta lehia handiaren ostean, *Swifway*-Guillaume Guedj-Gay bikoak lortu zuen garaipena *Mnesarete*-Gelabert eta *Hebe*-De Julian bikoek lasterketaren erritmo bizia ezarri zuten aurkariak atzean utzi nahian. Baina indarrak ez zituzten ongi neurtu eta ezin izan ziren azken lehiari sartu. Janaçek-ek zuzendutako *Alcedimzoe*-k hartu zuen euren testigua erritmoa markatuz; azken zuzengunean ezin izan zuten lana amaitu, ordea. *Salmarak*-Gutierrez del Val bikoak aurreratu eta buru jarri zen. Baina azken metroetan, *Guedj-Gay* eta *Clori*-Sousak *Swifway*-Guillaume gaititu zuten eta jockey frantziararen bikoak jaso zuen saria.

Astebete geroago Eusko Jaur-larritza saria jokatu zen. Aurreikuspen guztiak pikura joan ziren proban; *Grey Infinity*-Gelabert, *Samedi Rien*-Janaçek eta *Rodaballo*-Valle faboritok ez zuten lasterketa ongi irakurri. *Ifach Jean*-Bernard Eyqueme eta *Resacón*-Borja Fayos bikoteek lehiatu zuten garaipena; aurrenekoen eskuetan amaitu zuen garaikurrak.

## Azken probak

Ez dira lehiak amaitu, ordea. Hilaren 8ko eta 12ko jardunaldiek agurtuko dute udarako sasoa. Biak arratsaldeko saioak izango dira: lehena, 17:30ean; bigarrena, aldiz, 18:00etan.

## Alex Saleta, Europako Super Kopa lehiatzeko prest

Castilla y Leon Iberians taldeko deialdian sartu da herritarra. Lusitanosen aurka jokatu dute lehen neurketa

## Txintxarri

Uztailean Espainiako Selekzioarekin Ozeania aldean bira egin ostean, Castilla y Leon Iberians taldearen deialdian da Alex Saleta herritarra. Europako Super Kopa txapelketako edizio berria hilaren 7an jarriko da martxan eta Lusitanos taldearen aurka neurtuko ditu indarrak, Car Jamor zelaian (Cruz Quebrada, Portugal).

Lehiaketako lehen fasean Castilla y Leon Iberians A multzoan dago kokatua eta Portugalgo taldez gain, iazko txapelkun



Saleta, Selekzioaren neurketa batean.

Georgiako Black Lions izango du aurkari. Ligaxka moduan jokatu dute bi itzulira. Hilaren 15ean izango da georgiarren aurkako lehen partida; etorriko norgehiagoka, aldiz, hilaren 28an. Urriaren 5ean, multzoko lehiari amaiera emango diote Lusitanosen aurka.

## Talde berria

Denboraldi hasierako atzera kontua ere martxan du Saletak; urriaren 6an hasiko da Ohorezko Mailako lehia. VRAC Quesos Entrepinares taldearekin debuta egiteko gogoz dago herritarra. 11 talderi egin beharko die aurre Ligako txapelkunak. Lehen norgehiagokan derbia izango du VRACek El Salvadorren aurka eta urriaren 20an, aldiz, herritarren talde-ohi Ordizia Rugby taldea izango du aurrez aurre.



M. C. OLASO

## Olaso, podiumean Santanderren

Abuztuaren 31n, Kantabriako 50/100 km - Santander Hiria proba lehiatu zen Santander, Kantabrian. Mari Carmen Olaso herritarrek lasterketa motzean parte hartu zuen. Hamahirugarren postuan iritsi zen helmugara 05.01.28 denbora eginez. Baina beterano 55 mailako lehena izateagatik, podiumera (irudian, ezkerrean) igo zen Lasarte-Orian bizi den kirolaria.

2024  
2025  
ikasturtea

# EUSKARA IKASTEKO BEKAK



Lasarte-Orian erroldatua bazaude,  
Udalak euskara ikasteko ematen  
dituen bekak eska ditzakezu.

## Lasarte-Orian bi euskaltegi hauek dituzu

### Udal Euskaltegia

📍 Bekokale bidea 1  
☎ 943 361 621  
✉ euskaltegia@lasarte-oria.eus

Matrikulazio-epea  
irailaren 2tik 20ra

### Muntteri-AEK Euskaltegia

📍 Geltoki kalea 17 - behe  
☎ 607 625 233  
✉ lasarte@aek.eus

Matrikulazio-epea  
irailaren 2tik 24ra

! Ikastaroa Lasarte-Oriatik kanpoko euskaltegi edo  
barnetegiren batean egiten baduzu ere eska dezakezu.



Informazio gehiago:  
Euskara Zerbitzua

☎ 943 376 184  
✉ euskara@lasarte-oria.eus



LASARTE-ORIA  
UDALA - AYUNTAMIENTO

## ZORION AGURRAK



**Ibai**  
Zorionak bihotza!  
Zure eguna ederki  
igaro izana espero  
dugu. 12 muxu goxo  
familiaren partetik.  
Urte askotarako!



**Araia**  
Zorionak bihotza!  
Zure eguna primeran  
ospatu genuen, ezta?  
10 muxu goxo aitabxo  
eta amatxoren  
partetik. Urte  
askotarako!



**Maren**  
Zorionak Maren!!!  
Zure alaitasunak eta  
zure irrifarrak  
bihotzak betetzen  
dizkigu egunero.  
Jarraitu zaren  
bezalako izaten  
Maite zaitugu!!!  
Eneko, aita eta ama.

## EGURALDIA LASARTE-ORIAN

Ostirala, 6



Larunbata, 7



Igandea, 8



Astelehena, 9



Asteartea, 10



Asteazkena, 11



Osteguna, 12



## TELEFONOAK

## UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA:  
943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK:  
943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

## LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

## ESKELAK

## ESKELA

**M<sup>a</sup> Pilar Mendiluce  
Goñi**

—Goian bego—

2024ko irailaren 5ean hil zen, 80 urte zituela.

Besarkada handi bat familiari



TTAKUN KULTUR ELKARTEA

Lasarte-Orian, 2024ko irailaren 6an.



## SUDOKUA

2	4		3				6	
8	6	7			2			
3	5				6	8		2
		3			5			
6	1	5	7	3	4	2	9	8
	7			1				
		6		2	1	7		
			9		3	4		6
	3						2	5

Sudoku10.net

GUARDIAKO  
FARMAZIAK

OSTIRALA, 6	ACHA-ORBEA
LARUNBATA, 7	LASA
IGANDEA, 8	LASA
ASTELEHENA, 9	URBISTONDO
ASTEARTEA, 10	GANDARIAS-URIBE
ASTEAZKENA, 11	DE ORUE
OSTEGUNA, 12	DE MIGUEL

## Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52  
 ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49  
 DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51  
 LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74  
 GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08  
 URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67  
 GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

## GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Florida Farmazia: Mañe I Flauquer  
 olaza 6, Hernani. 943-57 64 77

## 'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com)  
 webgunean eskuragarri.

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

## Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

## Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)  
 WhatsApp: 646 82 44 66  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

## Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4  
 Tel.: 943-37 14 48 (104)  
 WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)

## Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.  
 Lege Gordailua: SS-513/93  
 ISSN: 1134-0053  
 Tirada: 8.300 ale

## Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkartea  
 Geltoki kalea 4 (behea)  
 20160 Lasarte-Oria  
 G-20407557

## Administraria

Nerea Garziarena.

## Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo  
 Gonzalez, Maddi Zaldua eta  
 Maitane Aldanondo.

## Publizitatea

Irati Zatarain.

## Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
 Gorka Alvarez, Jexux  
 Artetxe, Maitane Rebe, Julen  
 Basterra, Lierni Rekondo eta  
 Aizpea Amas.

## Banatzaileak:

Egoitz Epelde, Ander Hazas,  
 Nora Navarro, Xuban  
 Urdalleta, Nikola Iraola eta  
 Gari Iraola.

BABESLEA



LASARTE-ORIA  
 UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.  
Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

## OSTIRALA 6

**LASARTE-ORIA Jaiak**  
Guadalupeko Ama Birjinaren omenezko jaiak aurrera eramaten ari da Extremadurako Etxea. Hauxe da bigarren eguneko egitaraua:

**18:30ean**, bazkide eta laguntzako luntxa.

**19:30ean**, bandera igotzea, txupinazioa eta danborrada.

**19:45ean**, Extremadurako jantzien desfilea.

**20:00etan**, Dinbi Banda batukada taldearen emanaldia.

**20:30ean**, pintxo-potea.

**22:30ean**, MNV DJaren saioa. *Extremadurako Etxeko egoitza (Adarra kalea, 4) eta Sasoeta auzoa, 18:30etik aurrera.*

## LARUNBATA 7

**LASARTE-ORIA Jaiak**  
Guadalupeko Ama Birjinaren omenezko jaiak aurrera eramaten ari da Extremadurako Etxea. Hauxe da hirugarren egunerako prestatu duten programa:

**11:00etan**, meza. Tolosatik etorritako Flor de la Jara taldeak emanaldia egingo du.



### LASARTE-ORIA Jaiak

Guadalupeko Ama Birjinaren omenezko festak ospatzen ari da Extremadurako Etxea. Igandera arte (hilak 8) adin tarte guztietako herritarrentzako jarduerak aurrera eramango ditu. *Extremadurako Etxea (Adarra kalea, 4) eta Sasoeta auzoa, hilaren 8ra arte.*

**12:00etan**, Oaintxe in deul txarangarekin kalejira; Ama Brigitarren komentutik hasi eta Sasoeta auzoraino joango dira parte hartzaileak.

**14:30ean**, paella herrikoia.

**16:00etan**, futbol txapelketa, Jalgune elkartearen eskutik.

**16:30ean**, mus txapelketa.

**17:00etan**, herri kirolak.

**17:30ean**, LOZET elkartearen buruhandiak ibiliko dira Sasoetan barrena.

**18:00etan**, Donostiatik etorritako Virgen de Guadalupe taldearen emanaldia.

**19:30ean**, karaokea.

**21:00etan**, bazkide eta gonbidatuen afaria. Udal ordezkariek ere bertaratuko dira.

**23:00etan**, LOZET elkartearen zezensuzkoa.

**23:30ean**, MNV DJaren saioa. *Extremadurako Etxeko egoitza (Adarra kalea, 4), Sasoeta auzoa eta Ama Brigitarren komentua.*

## IGANDEA 8

### LASARTE-ORIA Jaiak

Guadalupeko Ama Birjinaren omenezko jaiak aurrera eramaten ari da Extremadurako Etxea. Hauxe da azken eguneko egitaraua:

**11:30ean**, marrazki lehiaketa.

**11:30ean**, haurrentzako jolasak eta tailerrak.

**13:00etan**, LOZET elkartearen buruhandi eta erraldioen kalejira.

**13:00etan**, Semblante Andaluz elkarte taldeen emanaldiak: Duende, Gitanillas del Alba eta Zambra.

**14:30ean**, herri bazkaria: Extremadurako eltzekaria.

**17:00etan**, tute txapelketa.

**17:30ean**, 18 urtetik gorako emakumeentzako bola txapelketa.

**19:00etan**, sari banaketa.

**20:00etan**, bandera jaitea eta jaien amaiera.

*Extremadurako Etxeko egoitza (Adarra kalea, 4) eta Sasoeta auzoa.*

## ASTELEHENA 9

### LASARTE-ORIA Musika

Xumela korauek ikasturte berriari ekingo dio. Egitasmo horretako

kideek nabarmendu dute "euskaraz eta lagunartean" kantuan egiteko saioak izango direla, eta gaineratu, "edozeinek kantuan egiteko espazioa" izango dela. Gauzak horrela, herritarrak bertan parte hartzera deitu dituzte. Partaide izan nahi duenak entsegura agertu behar duela gogorazi dute. Astelehenero egingo dituzte saioak, ekainera arte.

*Oriarte Landaberri eraikina, 19:30etik 20:30era.*

### LASARTE-ORIA Musika

Alboka Abesbatzako kideek aurtengo aurreneko entsegua egingo dute. Kideek jakinarazi dute astelehen eta ostegunetan elkartuko direla. "Abestea gustuko duten 16 eta 60 urte birtarteko lasarteoriatarrek gonbidatzen ditu entsegu batean parte hartu eta egiten dugun lana ezagutzera". *Mirentxu, 20:00etatik 21:30era.*

## IGANDEA 15

### LASARTE-ORIA Bertsolaritza

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final zortzirenetako bat jokatu dute. Aitor Zubikarai, Amaia Iturriotz, Aner Peritz, Iñigo Mantzizidor, Manu Goiogana eta Oier Etxeberria ariko dira bertsotan. Sarrerak [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atari digitalean dituzte eskuragarri bertsosalariek.

*Manuel Lekuona Kultur Etxea, 17:00etan.*

## Argazki lehiaketan parte hartzeko azken eguna, 15a

Udara honetan zehar herritarrek ateratako irudi ederretako bi sarituko ditu TXINTXARRI aldizkariak

### Txintxarri

Argazki politikak atera al dituzu udaran zehar? Hala izan bada, aukera duzu TXINTXARRI aldizkariaren argazki lehiaketan parte hartu eta sari eder bat eskuratzeko: batetik, epaimahaiarena, Aldika produktu bereziz betetako sorta bat, eta, bestetik, irakurleena, Errigoraren otar bat.

Lehiaketan parte hartu nahi dutenek baldintza hauek kontuan izan beharko dituzte: argazkiak originalak izatea (hau da, norberak ateratakoak), gehienez hiru bidaltzea eta irudi guztien izen-

burua jartzea. Azken eguna hilaren 15a izango da, igandea. TXINTXARRI-k bere atari digitalean ikusgai jarriko ditu egun horretara arte jasotako lan guztiak.

Epaimahaiaren saria argazkilaritza ogibide duten hiru herritarrek erabakiko dute. Irakurleena, aldiz, TXINTXARRI-ren edukietan barrena nabigatzen duten pertsonen, hilaren 16tik 22ra gehien gustatzen zaien argazkiari botoa emanda.

Argazkiak ateratzea gustuko baduzu eta udaran zehar erakusteko modukoak diren irudiak

aldika

Epaimahai saria

Aldika produktuak

Irakurle saria

Irakurle saria

**argazki lehiaketa**

'Gardentasuna' eta 'Gau giroa' izan ziren iazko irabazleak. TXINTXARRI

egin badituzu, anima zaitez lehiaketan parte hartzera eta zorte on!

**'Gardentasuna' eta 'Gau giroa'**  
Artikulu hau ilustratzen duen irudian ikus ditzakezue TXIN-

TXARRI-k iaz egindako argazki lehiaketa irabazi zuten irudiak: epaimahaiaren saria etxeratu zuen *Gardentasuna*-ren egileak, eta, *Gau giroa* bidali zuenak, aldiz, irakurleena poltsikoratu zuen.

## Parte hartzeko jarraibideak

Lehiaketan parte hartzeko bide ugari dituzte: [txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus) helbide elektronikoa, 646 82 44 66 telefono zenbakia (WhatsApp) edota [www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) atari digitalera argazkiak zuzenean igotzea.



# LASARTE-ORIA

 Irailak 15, igandea, 17:00

 Manuel Lekuona kultur etxea

[www.bertsozale.eus/gipuzkoakotxapelketa](http://www.bertsozale.eus/gipuzkoakotxapelketa)  
[www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus)



# GBT24

GIPUZKOAKO  
BERTSOLARI  
TXAPELKETA  
2024



## Zozketa!

Hilaren 15ean Lasarte-Orian ospatuko den  
Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako  
final-zortzirenerako 4 sarrera bikoitz zozkatuko ditugu.

Eman izena irailaren 11 baino lehen.

**Bazkide zara?**

[harpidetza@ttakun.eus](mailto:harpidetza@ttakun.eus) helbidean, 943-37 14 48  
zenbakira deituta eta 646 82 44 66 (whatsapp)

## LASARTE-ORIA



FINAL-ZORTZIRENAK

## GBT24

GIPUZKOAKO  
BERTSOLARI  
TXAPELKETA  
2024

# zitek zientzi eskola

**Beti zuei laguntzeko prest!**

**Laguntza taldeak  
Ikasketa teknikak**

Goikale Kalea 12, behea Lasarte-Oria. 943-36 31 06  
[info@zitek-akademia.com](mailto:info@zitek-akademia.com) | [www.zitek-akademia.com](http://www.zitek-akademia.com)

## 2024-2025 IKASTURTEA

**Irailen matrikula DOAN!**

- LH - DBH - BATXILLERGOA - ZIKLOAK  
Zientziak | Letrak
- HIZKUNTZAK: Ingelesa eta Frantsesa

**Mekanografia, astean behin:  
irailtik maiatzera. Baita larunbatetan ere!!**

## UDAL EUSKALTEGIA - 2024-2025 ikasturtea

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK IRAILAREN 20 ARTE.

### AURREZ AURREKOAK

Hiru ordutegi aukeran  
Txandaka aritzeko aukera guztietan  
ONLINE - BOGA

### AZTERKETEN PRESTAKETA

HABEren maila guztiak, A1etik C1era  
A1 eta A2 mailak Euskaltegian bertan lortzeko dira.  
OSAKIDETZA, IVAP, HEZKUNTZA, ERTZAINZTA

### INFORMA ZAITEZ

**Diru-laguntza:**  
**85% ikasle guztientzat**  
Eta deskontuak gazte eta  
langabetuentzat  
**10 kuotatan**  
**ordaintzako aukera**

HABE diruz lagundua

HADE



**C1**  
**16-18 URTEKOENTZAT**  
**35 EURO**